

Txalo gutxi jaso ditu Berlinale estreinatu duen filmak, 'Aimée und Jaguar'-ek

Felix Biskarret nafarraren 'Dreamers' film laburra emango dute gaur jaialdian

Agentziak / Berlin

Epel hasi da 49. Berlinale. Lehiaketara aurkezturiko lehen filmak, Max Faerbeboeckek *Aimée und Jaguar*-ek txalo gutxi jaso zituen. Gaur Thomas Vincenten *Karnaval* eta Manuel Gomez Pereiraren *Entre las piernas* filmak eskainiko dituzte sail ofizialean. Film laburren atalean, berriz, Felix Biskarret iruindarraren *Dreamers* aurkeztuko dute.

NAZISMOAREN garaian bi emakumeren artean —soldadu nazi batean emaztea bata, eta judua bestea— izandako benetako amodiozko istorio lazgarria azaltzen duen *Aimée und Jaguar* filmak zabaldu zuen atzo Berlingo 49. zinema jaialdia. Bi emakumeok —Lilly Wust eta Felice Schragenheim— idilio zoriontsua bizi izan zuten Berlinen, Gestapok Felice atxilotu eta kontzentrazio esparru batera bidali zuen arte.

Max Faerbeboeck zuzendari alemaniarren lehen film luzeak, etxean jokatu arren, txalo herabe batzuk baino ez zituen jaso inaugurazio ekitaldian. «Berlinen 1943an zen kaosaren erdian bi emakumeok izan zuten amodiozko harremanaren indar dramatikoa izan zen istorioa filmatzera bultzatu ninduten arrazoietakoa bat», azaldu zuen Faerbeboeckek. Kritikaren harrera epela izan arren, gustura azaldu ziren taldeko kideak Berlinale zabaldu izanagatik.

Gaur Frantzia eta Espainiako filmak

Sail ofizialeko gaurko saioan hiru film pantailaratuko dira, horietako bat, James Moll-en *The last days* ekoizpen anglo-hungariarra, lehiaketatik kanpo. Beste bi filmak Frantziatik eta Espainiatik iritsi dira Berlinera. Thomas Vincentek zuzendutako *Karnaval* filmak arazoak dituzten bikote baten eta mutil baten arteko harremana kontatzen du. Manuel Gomez Pereiraren *Entre las piernas*, berriz, sexu menpekotasuna sendatzeko tratamendu saio batean baturiko bi pertsonaiaren inguruan osaturiko *thriller* bat da.



HANS EDINGER / AP

Maria Schrader, Max Faerbeboeck eta Juliane Koehler, *Aimée und Jaguar* filmeko kideak.

'Dreamers'

■ ■ ■ New Jerseyko Unibertsitatean filmatu du Felix Biskarretek *Dreamers*. 16 milimetroko artxiboko irudi zaharrekin eginiko film laburra da.

Euskal zinemagilerik ez da izango aurten Berlinaleko sail ofizialean. Hala ere, film laburren artean Felix Biskarreta nafarraren *Dreamers* lana aukeratu dute, eta gaur eskainiko dute. 1975ean jaio zen Felix Biskarret, Iruñean. Madrilgo Unibertsitate Konplutensean kazetaritza ikasi zuen, eta 1997an New Jerseyko William Paterson Uni-

bertsitateko zinema fakultatera joan zen, truke egitasmo baten barruan. Han egin zuen *Dreamers*. Ez da, ordea, egin duen film labur bakarra, beste bi baitaizka: *Shapes* eta *The day I saw Karin*.

Hamaika minutu irauten duen ingelesezko filma da *Dreamers*. 16 milimetroko artxiboko irudiekin lanean ari zela otu zitzaion film

laburra egiteko ideia Biskarreti. Irudi zahar horiekin muntaia berri bat eginez, haiekin zerikusirik ez duen istorio bat osatu du gazte nafarrak. Gizon batek bere aitaz duen oroimena azaldu nahi luke *Dreamers* film laburrak.

Panorama sailean, Korea-ko *Birdcage Inn*. eta Turkia-ko *Lola & Bilidikid* ikusiko dira gaur. Bitartean, zeluloideko lehen izarrak noiz iritsiko zain dira Berlinen. Jaialdiaren antolatzaileek ez dute inolako daturik eman nahi izan, baina Shirley Maclaine, Meryl Streep, Bruce Willis, Nick Nolte eta Harvey Keitel iristea espero da datozen egunotan.

Bartzelona Hiria sariak gaur banatuko dituzte

■ Antoni Tapies, Isabel Coixet eta Mario Gas sarituko dituzte, besteak beste

Efe / Bartzelona

URTERO egin ohi duen legeaz, Bartzelonako Udalak bere sariak banatuko ditu bihar. Sari horiek hainbat kultur esparrutako jendearen lana goraitzea dute helburu.

Antoni Tapies pintoreak jasoko du artearen esparruko saria, urte luzeetan egin duen lanarengatik. Musikarena Joan Guinjoan konpositorearentzat izango da, *La segona simfonia Ciutat de Tarragona* obra dela eta. Annie Bats eta Ramon Lladok itzulpenaren garaikurra eskuratu dute, *La vida manual d'ús* liburuaren katalanezko bertsioa osatzeagatik.

Arte eszenikoei dagokienez, Mario Gas zuzendari ezagunari egokitu zaio aurtengo saria. *Guys and Dolls* eta *La reina de belleza de Leenane* antzezlanak omentzera dator sari hori.

Zinemaren alorrean Isabel Coixet aukeratu dute iazko zuzendari onena, *A los que aman* filma dela eta. Marius Serrak eta haren *La vida normal* liburuak jaso dute literaturari dagokion saria.

Gaztelaniazko literaturan, Javier Fernandez Castro aukeratu dute *La tierra prometida* nobelarengatik. Historia saria Joaquim Coll Amargosentzat izango da, *Narcís Verdaguer i Callis i el catalanisme possibilista* lanari esker. Zientzia ikertzaile onenari ematen zaion saria Bartzelonako Unibertsitateko Biologia Institutuari eman diote aurtengo ekitaldian.